

OÑATIKO UDALAREN JABEGOKO 2059.3 "ARTIA" HOMan EGIN BEHARREKO BASOGINTZA EKINTZEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Oñatiko udalaren jabegoko 2059.3 "Artia" HOMan egin beharreko basogintza ekintzen baldintza teknikoek agiria

1.- BASOGINTZA EKINTZEN EZAUGARRIAK:

1.1.- Egin beharreko basogintza ekintzen testuingurua:

Ondorengo baso ustiapenen Baldintza Teknikoen Agiria, Artia 2.059-3 zenbakia duen Herri Onurako Mendiaren (HOM) Baso Antolaketa Proiektuak 2015-2018 urteetarako planifikatutako basogintza ekintzen baitan kokatzen da (*Berrikuntza, Landa Garapeneko eta Turismo departamentuko foru diputatuaren 2015eko martxoaren 4ko Foru Agindu bitartez onartuta*)

1.2.-Basogintza ekintzen kokapena eta ezaugarriak:

Unada bakoitzaren kokapena atxikitzen den planoetan zehaztu dira (*1. eranskina*)

UNADA ERREFERENTZIA	AZALERA (HA)	KOKAPENA	BASOGINTZA EKINTZA MOTA	ESPEZIEA
ART-A02	6,44	Andarto errekarekin mugan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Picea abies</i>
ART-A04	32,68	Nesken Hegia parajejan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus radiata</i>
ART-A07	6,78	Errekagaztaneta inguruan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-A08	4,64	Aldazkorta parajejan	Birsorkuntza mozketak/Corta de regeneración	<i>Pinus radiata</i>
ART-A12	16,38	Enparantzako errekarekin mugan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-A15	9,48	Korostola parajejan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-A23	2,89	Gorabideta parajejan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-A26	16,04	Potoskueta parajejan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus radiata</i>
ART-A29	0,83	Enparantzako errekarekin mugan	Behetik egingo den bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo bajo	<i>Pinus radiata</i>
ART-B07	3,81	Egaraleku parajejan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-B08	0,89	Bildotxolako korta eremuan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus attenuata, P. radiata.</i>
ART-B09	0,62	Bildotxolako korta eremuan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pseudotsuga menziensis</i>
ART-B16	10,75	Estepasakon parajejan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-B32	3,89	Asundui parajejan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Larix sp.</i>

ART-B33	3,81	Illarragorri parajea	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-B34	0,50	Illarragorri parajea	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Larix sp.</i>
ART-B35	1,64	Illarragorri parajea	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Chamaecyparis lawsoniana</i>
ART-C06	0,80	Arrolabiko aitzaren ondoan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-C10	2,09	Okola errekarrekin mugan	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-C13	1,54	Katarretako haitzaren ekialdean	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>P. nigra/ Chamaecyparis lawsoniana</i>
ART-C16	0,43	Arantzadui errekarrekin mugan	Erraztuntze lanak/trabajos de anillamiento	<i>Pinus nigra</i>
ART-C21	11,87	Altaata parajea	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>
ART-C25	2,64	Kukulatza eta tronkolekueta parejeen artean	Goitikako bakanketa selektiboa/Clara selectiva por lo alto	<i>Pinus nigra</i>

Basogintza ekintza guztiek etorkizuneko eta bota beharreko zuhaitzen aurre-markaketa bereiztua behar izango dute. Markaketa hau, Oñatiko udalak zehaztutako teknikari aditu batek egingo du, beti ere, Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauak xedatutako eskumenen kalterik gabe, hau da, GFAko Mendietako eta Natura Ingurune zuzendaritzak aurre-markaketari ezar lekitzkiekeen zuzenketa edo iradokizunak kontuan izan beharko dira.

1.3.-Basogintza ekintzen berariazko deskribapena:

UNADA ERREFERENTZIA	BASOGINTZA EKINTZA MOTA	BASO MASAREN BATAZBESTEKO DIAMETROA (Dg)
ART-A02	10-20 zm-ko diametroa berdindu edo gaintzen duten hostozabalak (haritzari lehentasuna) eta kalitate oneneko izeiak etorkizunekoak kontsideratuko dira. Etorkizuneko oinak markatu ondoren, lehia egiten dien diametro handieneko aleak moztuko dira. Tratamenduaren pisua: ABaren %30 murrizketa. Kendu beharreko zuhaitz kopurua= 106 ale/ha Geldituko den zuhaitz kopurua= 247 ale/ha.	37,3 zm
LEHENTASUNAK:	Etorkizuneko zuhaitzen babesean oinarrituko diren baso mozketak./ haritz kandudunaren birsorkuntza emendatzea/ Errekaren ibilgu eta ibarbasoaren babesa.	
ART-A04	Inausketa altua egina duten ale onenei lagunduko zaie, ondoan lehia egiten dien insignis pinu lodienak moztuz. Bakanketaren ondorengo zuhaitz dentsitatea 600 zuhaitz/hektareako izango da. (Kendu beharrekoak 115 zuhaitz/ha). Hurrengo bakanketa selektiboa 2025 edo 2026ean egin beharko da. 400 ale/ha-ko dentsitatera pasako da, 200 ale/ha ko kenduz	23,7 zm

UNADA ERREFERENTZIA	BASOGINTZA EKINTZA MOTA	BASO MASAREN BATAZBESTEKO DIAMETROA (Dg)
LEHENTASUNAK:	Azpibasoan edo tartean dauden hostozabalak babestuko dira eta bereziki Quercus eta Sorbus generokoak	
ART-A07	Etorkizuneko hostozabalik ez dauden lekuetan pinuaren garapena sustatuko duen bakanketa egingo da. Beraz, etorkizuneko zuhaitzak aukeratu ondoren (hostozabalak eta pinu hoberenak), lehia egiten dien diametro handieneko aleak kenduko dira ABaren %20a murriztu arte. Kendu beharreko batazbesteko pinu kopurua= 71 ale/ha. Geratuko den pinu kopurua= 283 /ha.	33,8 zm
LEHENTASUNAK:	Etorkizuneko aleak bakanketa lanetan ez kaltetzea/Birlanaketaren garapena.	
ART-A08	Azpibasoan dauden hostozabalak ahal den gutxien kaltetuz, pinudiaren erabateko soilketa egingo da. Gainbeherarako 10 insignis/ha-ko pinu utziko dira moztu gabe.	48,8 zm
LEHENTASUNAK:	Bertan dauden haritz eta bestelako hostozabalen babesa / Gainbeherarako geldituko diren ale batzuk uztea	
ART-A12	Hurrengo urteetan (iraunalditik kanpo) etorkizuneko zuhaitzen inguruan ustiatuko diren zuhaitz kopurua murriztu nahi da, kalteak jasateko izango duten arriskua murrizteko. Bestalde, etorkizuneko hostozabalik ez dagoen lekuetan, pinuaren garapena suspertuko duen bakanketa egingo da. Beraz, etorkizuneko zuhaitzak aukeratu ondoren (hostozabal menperatzaileak eta pinu hoberenak), lehia egiten dien diametro handieneko aleak kenduko dira ABaren %20a murriztu arte. Kendu beharreko batazbesteko pinu kopurua= 53 ale/ha. Geratuko den pinu kopurua= 214 ale/ha.	38,3 zm
LEHENTASUNAK:	Etorkizuneko aleak bakanketa lanetan ez kaltetzea.	
ART-A15	Pinu hoberenen garapena sustatu eta haga baso adin naturala gainditu edo berdintzen duten hostozabalei (Quercus generokoei lehentasuna) lehia murrizteko helburuarekin, diametro handieneko pinu aleak moztuko dira, AB-aren %20 murriztuz. Kendu beharreko pinu kopurua: 44 ale/ha. Geldituko den pinu kopurua: 252 ale/ha	38,4 zm
LEHENTASUNAK:	Aukeratu eta markatutako etorkizuneko aleak babestea / Pinuaren garapena emendatzea / Quercus generoko ale helduei laguntza.	
ART-A23	Goitikako bakanketa selektiboa, zeinak pago, gorosti eta Pinu hoberenen garapena bilatuko duen. AB-aren %15-aren murrizketa. Moztuko den pinu kopurua: 49 ale/ha. Geldituko den pinu kopurua: 277 ale/ha.	34,75 zm
LEHENTASUNAK:	Etorkizuneko zuhaitz eta azpibasoaren babesa.	

UNADA ERREFERENTZIA	BASOGINTZA EKINTZA MOTA	BASO MASAREN BATAZBESTEKO DIAMETROA (Dg)
ART-A26	Inausketa altua egin duten ale onenei lagunduko zaie, ondoan lehia egiten dien insignis pinu lodiena moztuz. Bakanketaren ondorengo zuhaitz dentsitatea 450 zuhaitz/hektareako izango da. (Kendu beharrekoak 195 zuhaitz/ha). Ondorengo bakanketa selektiboa, 450 ale/ha-ko dentsitatekin, 300 ale/ha-ko dentsitate pasako da (2024 edo 2025ean).	23,3 zm
LEHENTASUNAK:	Azpibasoa edo tartean dauden hostozabalak babestuko dira eta bereziki Quercus eta Sorbus generokoak.	
ART-A29	Inausketa altua eginda duten aleei lagunduko zaie, lehia egiten dien pinuak moztuz. Guztira 173 ale/ha moztuko dira, haizeak eta elurrak puskatutako aleetatik hasiz. Geldituko den zuhaitz kopurua=500 ale/ha.	24,97 zm
LEHENTASUNAK:	Inausketa altua egin duten pinuen garapena emendatzea	
ART-B07	Etorkizuneko ale gisa markatzen diren aleei diametro handieneko lehiakidea kenduko zaie, AB-aren %15a murriztu arte. Lehiakidea botatzeko garaian, etorkizuneko alea kaltetzeko arriskua badago, lehiakidea eraztunduko da. Kendu beharreko konifero kopurua: 29 ale/ha. Geldituko den konifero kopurua: 166 ale/ha.	38,2 zm
LEHENTASUNAK:	Etorkizuneko ale gisa markatu diren hostozabalen babesa./ Irisgarritasun arazoak izan, errekatik oso gertu dauden edo gainbeheran hasi diren aleen artean, 10 eta 15 ale/ha-ko aukeratuko dira, gainbeheran gelditzeko.	
ART-B08	Etorkizuneko ale gisa markatzen diren hostozabalei diametro handieneko lehiakidea kenduko zaie, AB-aren %15a murriztu arte. Lehiakidea botatzeko garaian, etorkizuneko alea kaltetzeko arriskua badago, lehiakidea eraztunduko da. Kendu beharreko konifero kopurua: 28 ale/ha. Geldituko den konifero kopurua: ale/ha. 227 pinu/ha.	35,6 zm
LEHENTASUNAK:	Ezaugarri morfologiko onak dituzten etorkizuneko aleei laguntza. / Irisgarritasun arazoak izan, errekatik oso gertu dauden edo gainbeheran hasi diren aleen artean, 10 eta 15 ale/ha-ko aukeratuko dira, gainbeheran gelditzeko.	
ART-B09	Egonkortasun ona duten lawson izei hoberenak etorkizuneko ale gisa markatuz, diametro handieneko lehiakidea kenduko zaie AB-aren %30aren murrizketa egin arte. Kendu beharreko ale kopurua= 65 lizei/ha. geldituko den izen kopurua: 195 ale/ha.	51,9 zm
LEHENTASUNAK:	Birlandaketaren garapenaren sustapena	
ART-B16	Hostozabal eta pinu hoberenak aukeratuz, lehia egiten dien diametro handieneko aleak kenduko dira, AB %15-a unadan uniformeki murriztu arte. Hostozabal garatuak (menperatzaileak) dauden lekuetan, hauengan dagoen lehiaren murrizketan oinarritu beharko dira mozketak. Kendu beharreko zuhaitz kopurua 38 ale/ha. Geldituko den zuhaitz kopurua= 213 zuhaitz/ha. Ez da domeinatutako zuhaitzik moztuko.	39,8 zm
LEHENTASUNAK:	Azpibasoa dauden aleen babesa/Larizio pinuaren garapena.	

UNADA ERREFERENTZIA	BASOGINTZA EKINTZA MOTA	BASO MASAREN BATAZBESTEKO DIAMETROA (Dg)
<p>ART-B32</p>	<p>Etorkizuneko aleak markatu eta gero, Alertzearen ABaren %10 murrizketa eragingo duen Goitikako bakanketa egingo da. Alertzea nagusi den eremuetan berriz, alertze hoberenei laguntzeko asmoz, etorkizuneko aleari lehia egiten dion diametro handieneko lehiakidea moztuko zaio. Kendu beharreko ale kopurua: 23 ale/ha. Geldituko den alertze kopurua: 133 alertze/ha.</p>	<p>37,7 zm</p>
<p>LEHENTASUNAK:</p>	<p>Hostozabalen birsorkuntza berria sustatzea / Ezaugarri morfologiko onak dituzten aleen hobekuntza / Alertzearen garapena emendatzea / Quercus, Prunus, Sorbus aleen presentzia emendatzea.</p>	
<p>ART-B33</p>	<p>Etorkizuneko aleak markatu eta gero, Larizioaren ABaren %15 murrizketa eragingo duen Goitikako bakanketa egingo da. Larizioa nagusi den eremuetan berriz, Larizio hoberenei laguntzeko asmoz, etorkizuneko aleari lehia egiten dion diametro handieneko lehiakidea moztuko zaio. Bizitasun ona duten haritz menperatzaileei, etorkizuneko aleak izateko lehentasuna emango zaie Kendu beharreko ale kopurua: 25 Larizio/ha. Geldituko den pinu kopurua: 143 pinu/ha.</p>	<p>44,2 zm</p>
<p>LEHENTASUNAK:</p>	<p>Quercus generoko aleei lehentasuna./ Quercus, Prunus, Sorbus aleen presentzia emendatzea.</p>	
<p>ART-B34</p>	<p>Etorkizuneko aleak markatu eta gero, Alertzearen ABaren %15 murrizketa eragingo duen Goitikako bakanketa egingo da, etorkizuneko aleari lehia egiten dion diametro handieneko lehiakidea moztuz. Kendu beharreko ale kopurua: 48 ale/ha. Geldituko den alertze kopurua: 271 alertze/ha.</p>	<p>25,1 zm</p>
<p>LEHENTASUNAK:</p>	<p>Quercus, Prunus, Sorbus aleen presentzia emendatzea / Hostozabalen birsorkuntza sustatzea / Birlandaketaren garapena.</p>	
<p>ART-B35</p>	<p>Birlandaketaren oin hoberenak (egonkortasun onekoak) etorkizuneko ale gisa aukeratu eta gero, AB-aren %25 ren murrizketa egingo da, etorkizunekoak aukeratu diren zuhaitzei lehia egiten dien diametro handieneko aleak kenduz. Kendu beharreko ale kopurua: 94 ale/ha. geldituko den zuhaitz kopurua: 282 ale/ha..</p>	<p>40,4 zm</p>
<p>LEHENTASUNAK:</p>	<p>Hostozabalen birsorkuntzaren sustapena./ Birlandaketaren garapena emendatzea / Azpibasoaren garapena suspertzea.</p>	
<p>ART-C06</p>	<p>Bertan dauden hostozabalen kolpe eta ale hoberenen lehia murrizteko asmoz, AB-aren %25-a murriztuko da, diametro handieneko lehiakideak moztuz. Era berean, koniferoak nagusi diren eremuetan, pisu berdineko bakanketa egingo da, azpitik datorren birsorkuntzaren garapena sustatzeko. Kendu beharreko pinu kopurua: 66 ale/ha. geldituko den konifero kopurua: 198 ale/ha.</p>	<p>40,1 zm</p>
<p>LEHENTASUNAK:</p>	<p>Espezie aniztasuna emendatzea, Sorbus, Quercus eta Ilex generoei lehentasuna emanez / Birlandaketaren garapena emendatzea.</p>	

UNADA ERREFERENTZIA	BASOGINTZA EKINTZA MOTA	BASO MASAREN BATAZBESTEKO DIAMETROA (Dg)
ART-C10	Bertan dauden hostozabal menperatzaile eta pinu hoberenen (Etorkizunekoak) garapena sustatuko duen goitikako bakanketa selektiboa egingo da, ABaren %15-a murriztuz. Kendu beharreko ale kopurua: 38 ale/ha. Geldituko den konifero kopurua: 216 ale/ha.	35,2 zm
LEHENTASUNAK:	Espezie aniztasuna emendatzea, <i>Sorbus</i> , <i>Quercus</i> eta <i>Ilex</i> generoei lehentasuna emanez/ Birlandaketa eta hostozabal menperatzaileen garapena emendatzea/Azpibasoaren babesa.	
ART-C13	Orokorrean, Larizio pinuan oinarrituko den goitikako bakanketa selektiboa egingo da, ABaren %15-a murriztu arte. Horretarako, larizio pinu hoberenak aukeratu eta gero, diametro handieneko lehiakidea kenduko zaie. Kendu beharreko pinu kopurua: 30 ale/ha. Geldituko den ale kopurua: 226 ale/ha.	46,34 zm
LEHENTASUNAK:	Azpibasoaren garapena ahalbidetzea/Azpibasoaren babesa/Birlandaketaren garapena emendatzea.	
ART-C16	Unadak duen irisgarritasun eskasa dela eta, ez da egurrik aterako. Bestalde, unadan dauden haritz ale helduek (etorkizunekoak) jasaten ari diren lehia murrizteko asmoz, beharrezkoak diren pinuak (15-30 pinu inguru) eraztunduko dira.	-
LEHENTASUNAK:	Azpibasoaren babesa	
ART-C21	Ale hoberenak aukeratu eta gero (etorkizunekoak), diametro handieneko lehiakideak moztuko dira, AB-aren %20 murriztu arte. Kendu beharrekoak: 83 ale/ha. Geldituko diren koniferoak: 333 ale/ha. Ez da menperatutako alerik moztuko.	29,7 zm
LEHENTASUNAK:	<i>Quercus</i> eta <i>Sorbus</i> generoko azpibaso eta aleen babesa.	
ART-C25	Pago, haritz eta larizio pinu hoberenak etorkizuneko hartuz, diametro handieneko lehiakide menperatzaileak moztuko dira AB-aren %15-a murriztu arte. Kendu beharreko aleak: 32 ale/ha. Geldituko diren koniferoak: 180 ale/ha.	44,3 zm
LEHENTASUNAK:	Bizitasun oneko <i>Quercus</i> generoko eta pago menperatzaileei lehentasuna/ <i>Sorbus</i> generoko azpibasoaren babesa.	

1.3.-Gauza jakin eta zehatza:

Baldintza tekniko agiriaren helburu diren basogintza ekintzek, guztira 141,44 hektarea osatzen dituzte. Aitzitik, unada batzuetan izan daitezkeen irisgarritasun arazoak direla eta, beharrezkoak izan daitezkeen aterabideen eraikuntzarako baimenak lortu ezean, azalera hau murriztuta ikus daiteke.

1.4.-Aterako diren materialen estimazioa:

Aipatu "2059.3 zenbakidun "Artia" HOMaren Baso Antolaketa Proiektuan " egindako baso inbentarioaren estimazioaren eta gauza jakinean aipatutako 141,44 hektareen arabera, unada bakoitzetik aterako diren materialen zenbateko eta ezaugarriak ondorengoak dira:

UNADA ERREFERENTZIA	AZALERA (HA)	ESPEZIEA	Dg (zm)	VCC (m ³ /ha)	VCC (m ³)
ART-A02	6,44	<i>Picea abies</i>	37,3 zm	125	805,00
ART-A04	32,68	<i>Pinus radiata</i>	23,7 cm	64	2.091,52
ART-A07	6,78	<i>Pinus nigra</i>	33,8 cm	61	413,58
ART-A08	4,64	<i>Pinus radiata</i>	48,8 cm	628	2.913,92
ART-A12	16,38	<i>Pinus nigra</i>	38,3 cm	71	1.162,98
ART-A15	9,48	<i>Pinus nigra</i>	38,4 cm	56,7	537,52
ART-A23	2,89	<i>Pinus nigra</i>	34,75 cm	44,67	129,10
ART-A26	16,04	<i>Pinus radiata</i>	23,3 cm	77	1.235,08
ART-A29	0,83	<i>Pinus radiata</i>	24,97 cm	49	40,67
ART-B07	3,81	<i>Pinus nigra</i>	38,2 cm	34,07	129,81
ART-B08	0,89	<i>Pinus attenuata, P. radiata.</i>	35,6 cm	42,68	37,99
ART-B09	0,62	<i>Pseudotsuga menziensis</i>	51,9 cm	253,3	157,05
ART-B16	10,75	<i>Pinus nigra</i>	39,8 cm	48,7	523,53
ART-B32	3,89	<i>Larix sp.</i>	37,7 cm	29,82	116,00
ART-B33	3,81	<i>Pinus nigra</i>	44,2 cm	44,11	168,06
ART-B34	0,50	<i>Larix sp.</i>	25,1 cm	23,12	11,56
ART-B35	1,64	<i>Chamaecyparis lawsoniana</i>	40,4 cm	108,5	177,94
ART-C06	0,80	<i>Pinus nigra</i>	40,1 cm	104,29	83,43
ART-C10	2,09	<i>Pinus nigra</i>	35,2 cm	44,15	92,27
ART-C13	1,54	<i>P. nigra/ Chamaecyparis lawsoniana</i>	46,34 zm	53,33	82,13
ART-C16	0,43	<i>Pinus nigra</i>	-	0	0,00
ART-C21	11,87	<i>Pinus nigra</i>	29,7 cm	52,48	622,94
ART-C25	2,64	<i>Pinus nigra</i>	44,3 zm	51,56	136,12
GUZTIRA					11.668,17

1.5.-Aterako diren materialen balioespena (Tasazioa):

Aterako diren materialen balioespena unadaz unada estimatu da, baso masaren batez besteko diametroaren araberrako prezio unitarioa zehaztuz. Halaber, basogintza ekintza batzuk defizita sortuko dutenez, etekin negatibo gisa kontsideratu dira. Egindako kalkuluak jarraian zehazten dira:

UNADA ERREFERENTZIA	AZALERA (HA)	ESPEZIEA	Dg (zm)	Estereoak (m ³ egur metatua)	PREZIOA (€/est.)	GUZTIRA (€)
ART-A02	6,44	<i>Picea abies</i>	37,3 zm	1.238,09	6,5	8.048
ART-A04	32,68	<i>Pinus radiata</i>	23,7 cm	3.216,76	3,9	12.545
ART-A07	6,78	<i>Pinus nigra</i>	33,8 zm	636,09	6,5	4.135
ART-A08	4,64	<i>Pinus radiata</i>	48,8 cm	4.481,61	13,5	60.502
ART-A12	16,38	<i>Pinus nigra</i>	38,3 cm	1.788,66	6,5	11.626
ART-A15	9,48	<i>Pinus nigra</i>	38,4 cm	826,70	6,5	5.374
ART-A23	2,89	<i>Pinus nigra</i>	34,75 zm	198,55	6,5	1.291
ART-A26	16,04	<i>Pinus radiata</i>	23,3 cm	1.899,55	3,9	7.408
ART-A29	0,83	<i>Pinus radiata</i>	24,97 zm	62,55	-7,96	-498
ART-B07	3,81	<i>Pinus nigra</i>	38,2 cm	199,64	6,5	1.298
ART-B08	0,89	<i>Pinus attenuata, P. radiata.</i>	35,6 zm	58,42	6,5	380
ART-B09	0,62	<i>Pseudotsuga menziensis</i>	51,9 zm	241,54	13	3.140
ART-B16	10,75	<i>Pinus nigra</i>	39,8 zm	805,18	6,5	5.234
ART-B32	3,89	<i>Larix sp.</i>	37,7 cm	178,41	6,5	1.160
ART-B33	3,81	<i>Pinus nigra</i>	44,2 cm	258,47	6,5	1.680
ART-B34	0,50	<i>Larix sp.</i>	25,1 cm	17,78	-300	-300
ART-B35	1,64	<i>Chamaecyparis lawsoniana</i>	40,4 cm	273,67	13,0	3.558
ART-C06	0,80	<i>Pinus nigra</i>	40,1 cm	128,32	6,5	834
ART-C10	2,09	<i>Pinus nigra</i>	35,2 zm	141,92	6,5	922
ART-C13	1,54	<i>P. nigra/ Chamaecyparis lawsoniana</i>	46,34 zm	126,31	13,0	1.642
ART-C16	0,43	<i>Pinus nigra</i>	-	0,00	-258	-258
ART-C21	11,87	<i>Pinus nigra</i>	29,7 zm	958,08	6,5	6.228
ART-C25	2,64	<i>Pinus nigra</i>	44,3 zm	209,35	6,5	1.361
GUZTIRA (€)				11.668,17 est.		137.307 €

Prezio hauek BEZa barne dute. Aplikatu beharreko BEZa portzentajea, 102/92 Foru dekretuaren 43. artikulua araberako %21ekoa izango dira.

Aterako diren materialen ordainketa, unada bakoitzetik ateratako **materialen bukaeran egingo diren neurketen emaitzen araberako** egingo da.

1.6.-Esleipenaren behin betiko prezioa:

Esleipenaren behin betiko prezioa, unada bakoitzetik ateratako materialen bukaerako neurketen bidez kalkulatu da. Ikus Baldintza Tekniko Agiri honen 7.2 puntua: "Materialen behin betiko neurketak".

Esleipenaren behin betiko prezioa, unada bakoitzaren estereoaren prezioa (€/est), egindako neurketen emaitzengatik (est) biderkatuz lortuko da.

1.7.-Lanak burutzeko epea:

Behin esleipena eginda, aurre markaketa egiten den unetik 8 hilabeteko epea ezartzen da kontratua gauzatzeko.

Aipatu bukatzeko epea luzatu ahalko da, ezinbesteko kasuen ondorioz bada.

Aurreikusten diren kasu hauek ondorengoak dira:

- Meteorologiak eragindako egoera ez egokiak.
- Intereseko basa espezieen habi edo kumatze garaian dauden espezieen presentziarengatik.
- Administrazioari arrazoitutako eta honek onartutako ezinbesteko bestelako kasuengatik.

1.8.-Beharrezkoak diren lizentzien lorpena:

Errematatzailleak (esleipendunak) ustiaketa baimena eskatu beharko diote aurrez Baso Administrazioari, eta horretarako, behin betiko esleitu eta hogeitaz eguneko epean, honako hauek aurkeztu beharko ditu (ikus 5. puntua: Baldintza ekonomikoak):

- Esleipenaren zenbateko osoaren %20 (27.461,4 €) Hobekuntza Fondoan sartu izanaren egiaztagiriak
- Dagozkion tasak ordaindu izanaren egiaztagiriak
- Udalak ezarritako baldintza ekonomikoak bete izanaren egiaztagiriak

Behin ustiaketa bukatu ostean, Hobekuntza Fondora ingresatu beharreko zenbateko osoaren %20aren likidazioa egingo da.

Halaber, esleipendunak unada bakoitzean egin beharreko basogintza ekintzarekin hasteko, aurretik egin beharreko markaketa eginda dagoen ziurtatu beharko du.

2.- BALDINTZA OROKORRAK:

Egun indarrean dagoen Gipuzkoako Mendi Foru Arauan eta baldintza tekniko fakultatibo berezi eta orokorrean eta 1975-eko apirilaren 24eko (1975eko abuztuak 21eko 200 zenbakidun EBO - R-1675) eta 1975eko maiatzaren 6-ko (1975eko abuztuak 20-ko 199 zenbakidun EBO - R-1672) erabakietan zehazten direnak bete beharko dira.

3.- BERARIAZKO BALDINTZAK:

3.1.-Ordaindu beharreko tasak:

2059.3 zenbakia duen "Artia" HOMan aurreikusi diren basogintza ekintzak egiteko ordaindu beharreko tasak 1.687,52 €-koak dira, beti ere, Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauak xedatutako eskumenen kalterik gabe, hau da, GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendaritzak aipatu tasak egokitu ahal izango ditu.

3.2.- Erabiliko diren mendi pistak:

Egun mendian irekita daudenak erabili ahalko dira bakarrik. Oñatiko Udalak egun mendian dauden pisten egoera egokia behin betiko esleipenaren momentu arte bermatzen du. Era berean, lanak burutzen ari diren denboran, mendi pistak erabilgarriak egon beharko dira beti eta segurtasun aldetik egiten ari diren lanen berri emateko beharrezkoak izango diren seinalizazio abisuak jarriko dira.

Azkenik, ustiaketa lanak bukatzerakoan erabilitako mendi pistak lanak hasi aurretik zeuden egoera berdinean egon beharko dira. Errematatzaileak, udal ordezkarien pisten bukaerako egoeraren oniritzia jasotzerakoan bakarrik eskatu ahalko du hasieran jarritako bermearen (%4) ordainketa.

Oñatiko udala ez da Herri Onurako Menditik kanpo dauden mendi pisten erabilerarengatik edo beharrezkoak izan daitezkeen baimenengatik gerta daitezkeen erantzukizunen arduradun izango.

GFA-ko teknikari edo Udal Ordezkarien oniritzia jaso ezean, makina arrastatzaileak ezin izango dira mozketan eremuan sartu, eta beraz, arrastatu beharreko material guztiak egun eraikita dauden pistetatik atera beharko dira.

Pista berriak ireki beharko balira, Gipuzkoako Mendietako eta Natura Inguruneko sailaren baimena zein Udalaren oniritzia lortu beharko da.

Mendi pista berri edo egur ateratze bideen kostua errematatzailearen gain geldituko dira.

4.- SEGURTASUN ETA OSASUN NEURRIAK:

Esleipendun errematatzaileak laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 legeak zehaztutakoak betetzera behartuta egongo da (Azaroak 10eko 269 zenbakidun EBOan argitaratua).

Halaber, aurreikusitako basogintza ekintzek bertan lanak burutuko dituzten langileen segurtasun eta osasunari eragin diezaioketenez, errematatzaile esleipendunak langileek banakako babes-ekipoak erabiltzeari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ematen dituen Maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuan eta langileen lan ekipamenduen erabilerari buruzko Segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ematen dituen 1215/1997 Errege dekretuan zehaztutakoak betetzera behartuta egongo da.

5.-BALDINTZA EKONOMIKOAK:

Ustiaketa lanekin hasteko beharrezkoa izango den ustiaketa baimena lortu ahal izateko, errematatzaile esleipendunak, ondorengo baldintza ekonomikoak bete beharko ditu kontratua egin eta hogei eguneko epean:

- **Esleipenaren behin betiko prezioaren %20a:** Aurretik egin den egur-bolumenaren estimaziotik ondorioztatutako esleipenaren prezioaren %20aren ordainketa (27.461,4 €). Ordainketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde egingo da, Mendien Lurralde Batzordearen izenean (Kutxa K/K 051061045273)
- **Ustiaketa eremuetan izan daitezkeen kalteengatik %4ko bermea:** Aurretik egin den egur-bolumenaren estimaziotik ondorioztatutako esleipenaren prezioaren %4aren (5.492,3 €) ordainketa. (Ustiaketa bukatzerakoan mendi pistetan eta ustiaketa eremuan kalterik ezean, bueltatua izango dena.)
- **Tasak:** 2059.3 zenbakidun "Artia" mendian aurreikusi diren basogintza ekintzak egiteko ordaindu beharreko tasak 1.687,52 €-koak dira. Ordainketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde egingo da, Mendietako eta Natura Inguruneko sailaren izenean (Kutxa K/K 001061659065)

6.-BEHIN BETIKO BERMEA:

Aipatu bezala, 2059.3 zenbakidun "Artia" Herri Onurako Mendian aurreikusi diren basogintza ekintzak egiteko ordaindu beharreko bermea %4-koa (5.492,3 €) da.

7.-BESTE BALDINTZA BATZUK:

7.1.-Lanen antolakuntza:

Baso-ustiapena irauten duen denbora guztian zehar, errematatzaileak udal ordezkarietara eta Gipuzkoako Mendietako eta Natura Inguruneko saileko teknikarietara kasu egin beharko die.

Errematatzaileak ustiapenarekin hasi aurretik bota beharreko zuhaitzen aurre-markaketa bereiztua egin beharko da.

Markaketa hau, Oñatiko udalak zehaztutako teknikari aditu batek egingo du, beti ere, Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 Foru Arauak xedatutako eskumenen kalterik gabe, hau da, GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendaritzak aurre-markaketari ezar lekizkiokeen zuzenketa edo iradokizunak kontuan izan beharko dira.

Era berean, errematatzaileak ustiapenarekin hasi ahal izateko aurretik aipatu diren baimen eta baldintza ekonomiko guztiak beteta izan beharko ditu.

7.2.-Mozketa irizpideak:

Aurre-markaketak egiteko, Baldintza Tekniko Agiri honen 1.3 puntuan (Basogintza ekintzen berariazko deskribapena) eta aipatu Baso Antolaketa Proiektuan planifikatutako basogintza ekintza mota eta unada bakoitzerako zehaztutako irizpideak jarraituz egingo dira. Baldintza teknikoan Agiri honetan aurreikusten diren basogintza ekintza motak ondorengoak dira:

Behetik egingo diren bakanketak selektiboak: Aukeratutako (eta markatutako) etorkizuneko zuhaitzei laguntzeko asmoz, estropozu edo konpetentzia egiten dien **diametro txikieneko** aleetatik kendu beharreko aleak aukeratzeko hasten garenean.

Goitikako bakanketa selektiboak: Aukeratutako (eta markatutako) etorkizuneko zuhaitzei laguntzeko asmoz, estropozu edo konpetentzia egiten dien **diametro handieneko** aleetatik kendu beharreko aleak aukeratzeko hasten garenean.

Baldintza Tekniko Agiri honen 1.3 puntuan (Basogintza ekintzen berariazko deskribapena) zehaztu den unadetan, gainbeheran gelditzeko zuhaitzak aukeratu dira.

Moztutako aleen motzondoek, ezin izango dute, aldapan goiko aldean, 10 zm-tako altuera gainditu.

7.2.- Materialen behin betiko neurketak:

Ateratako materialen estereoen behin betiko bolumena, kamioan metatu diren materialen zabalera altuera eta luzera (metrotan) biderkatuz kalkulatu da. Kamioaiaren "ohea" erreferentzi gisa hartuz, batezbesteko altuera alde bietara egingo diren hiruna neurketen media eginez zehaztu da. Hau guztia, Udal ordezkari edo GFAko teknikarien presentziarekin egitea derrigorrezkoa izango da. Neurketa guztiak, GFA edo Udal ordezkariak beteko duten tauletan islatu dira.

Azpimarratu, ezin izango dela materialik atera Udal ordezkari edo GFAko teknikariaren presentziarik gabe.

8.-BESTE BALDINTZA BATZUK:

· MAKINARIA ETA EGIN BEHARREKO LAN EKIPOEN INGURUAN:

Makinaria eta lan ekipoen mantenua eta erregai betetze lanak kontu handiarekin egingo dira, edozein erregai edo olioaren isurketa arriskua ekidituz. Debekatuta egongo da edozein motatako hondakinak mendian uztea, eta batez ere, erregai, olio eta bestelakoak izan dituzten ontzietan dagokien kasuan.

· UR BALIABIDEEN BABESAREN INGURUAN:

1.- Ibarbasoa garatua duten errekek, 10 metrotako babesgunea izango dute ur ibilguaren alde bietara.

2.- Orokorrean, erreka eta erreken ur ibilguan ezin izango dira egur pilaketarik egin.

· HABITAT, ELEMENTU ETA EREMU INTERESGARRIEN INGURUAN:

1.- Ahal den neurrian, azpi-basoan dagoen landaredia babestuko da. Babes lehentasuna izango dute azpi-basoan izan daitezkeen fruta-arbola guztiak. Babes neurri bera izango dute azpi-basoan egon eta ezaugarri morfologiko egokiak dituzten bertako hostozabal (haritzari lehentasuna) guztiak.

2.- Edozein basogintza tratamendu egin baino lehen hegazti harrapakarien habien presentziarik ez dagoela ziurtatu behar da. Habiaren bat aurkituz gero, kumatze garaia igaro arte atzeratu da basogintza ekintza.

3.- Unaden barruan dauden eta faunarentzat garrantzitsuak diren mikrohabitata (hezeguneak, erreka eta ibarbasoak, ...) edozein eraginaren aurrean babestuak izango dira. Horretarako, ekintzaren intentsitatea murriztuz edo eremu horretan tratamendua ez eginez egingo da.

4.- Orokorrean, unaden barruan dauden zuhaitz zahar (zuhaitz mugarrituak edo faunarentzako garrantzizkoak izan daitezkeen zuloak dituzten zuhaitz helduak....) guztiak babestuko dira.

5.- Errematatzaileak mendian dauden monumentu megalitikoak babestu beharko ditu. Edozein zalantza izanez gero, Udal edo GFAko ordezkariekin jarri beharko da harremanetan.

2017ko martxoaren 7an


Iñigo Moreno Iriarte
Baso eta ingurumen Ingeniaria